## Videoteca de Baketik

Baketik ha creado una videoteca de películas y documentales cuyo contenido tiene relación con la lucha por vivir y convivir éticamente. Su objetivo es exclusivamente educativo y no comercial. Baketik presta gratuitamente estas películas a quien lo solicite: centros educativos, grupos de tiempo libre, parroquias, ONGs, asociaciones de todo tipo, familias, cuadrillas de amigos/as… Cada película va acompañada de una breve guía didáctica como ésta. Su finalidad es facilitar el análisis y la reflexión sobre su contenido. En cada una de estas guías un/a colaborador/a de Baketik que ha visto la película ha elaborado dos de sus apartados: «temática» y las «preguntas antes y después de su visionado». Es la sugerencia que nos hace esta persona para ver esta película. Si quieres tú también puedes colaborar enviándonos tus opiniones sobre películas que te hayan gustado. (Más información en www.baketik.org)

# Recuerdos desde Fukushima

## Ficha técnica

TITULO ORIGINAL: Grübe aus Fukushima.

AÑO: 2016.

DURACIÓN: 104 min.

PAIS: Alemania.

DIRECCION: Doris Dörrie.

REPARTO: Rosalia Thomas, Kaori Momoi, Moshe Cohen, Nami Kamata, Aya Irizuki, Thomas Lettow.

PRODUCCIÓN: Olga Film GmbH.

## Sinopsis

Una joven alemana entabla amistad con una mujer mayor japonesa durante un tour por la región de Fukushima, una zona afectada por el terremoto en el 2011 en Japón. María ha decidido viajar de Alemania a Fukushima para cambiar su vida. Con su trabajo en la organización Clows4Help espera llevar un poco de esperanza a los supervivientes del desastre nuclear. Pronto se da cuenta que no está capacitada para hacer más llevadera la tragedia de los afectados. Pero en lugar de huir decide quedarse con la arisca anciana Satomi, la última geisha de Fukushima que decidió volver a su casa en ruinas en la antigua zona de exclusión. Dos mujeres totalmente diferentes pero que, cada una a su modo, están atrapadas en el pasado y deben aprender a liberarse de la culpa y de la carga de los recuerdos.

## Temática

Naturaleza y ecología, amistad, sufrimiento

**Naturaleza y ecología.** El desastre radioactivo del Fukushima obligó a más de 110.000 personas a desplazarse. Los daños ocasionados en el medio ambiente y en las personas todavía continúan sin cuantificarse. La central nuclear no disponía de muros de contención para prevenir un tsunami, que fue el causante de esta catástrofe.

**Amistad.** La película describe la amistad entre dos personas que provienen de mundos y culturas totalmente distintas: Mary es alemana y Satomi japonesa

**Sufrimiento.** Las dos protagonistas de la cinta sufren por la pérdida y la culpa. El pasado y los recuerdos se manifiestan constantemente, y de alguna manera, el sentido de la vida presente se les hace imposible.

## Sugerencias para ver y escuchar la pelicula

Una película se puede ver y escuchar de muchas maneras. Ofrecemos unos puntos de referencia. Concretamente, sugerimos ver y escuchar la película…

**…hacia adentro**. Reflexionar sobre lo que la película nos sugiere en primera persona y sobre las preguntas que nos plantea en nuestra propia vida. No pretendemos buscar respuestas definitivas, atendemos a las resonancias que nos deja.

**…hacia fuera**. Promover un coloquio sobre la película en familia o en grupo. No se trata de llegar a conclusiones. Compartimos lo que hemos sentido y percibido e intentamos escuchar y entender la percepción diferente de los otros.

**…no solo con la cabeza**, también con el corazón. Se trata de dejar por un momento a un lado los prejuicios ideológicos o ideas preconcebidas para que, al hilo de lo que nos cuenta la película, puedan hablar los sentimientos.

…y después de algún tiempo repensar. Estar atentos al poso que la película deja después de unos días. Ese «poso» es una impresión en la que se funden nuestra reflexión sobre lo que hemos visto y la vida propia que la historia cobra en nosotros/as.

## Algunas preguntas…

**…antes de la película**

·Sobre la naturaleza y ecología. ¿La sociedad hace lo posible para mantener la naturaleza en armonía? ¿De quién depende que el medio ambiente no esté contaminado?

·Sobre la amistad. ¿El dolor compartido promueve la amistad? ¿De qué depende que dos personas de distinta edad, religión, raza y cultura logren ser amigas?

·Sobre el sufrimiento. ¿qué es el sentimiento de culpa? ¿Las pérdidas o ausencias qué estados de ánimo generan? ¿Por qué algunas personas sobrellevan mejor los errores o los fracasos?

**…después de la película**

·Cuando Mary llega a Fukushima a la zona de los realojados, ¿qué siente? ¿Por qué huye Satomi a su antigua casa y Mary la sigue? ¿Qué tienen en común ambas? Mary ha huido de su país para realizar una labor benefactora, ¿es esa la razón?

·Los fantasmas que noche tras noche aparecen, ¿qué buscan? ¿La aceptación de los hechos facilita nuevas oportunidades? ¿Los recuerdos dolorosos cuándo hacen retroceder a las personas, sin permitirles vivir el presente?

·¿Las geishas qué labor realizan? ¿Qué opinión te merece la relación de Satomi con su hija? El sentimiento de culpa conduce a Satomi al intento de suicidio, ¿por qué? Satomi se siente perdonada, ¿por qué?

baketik

**Zeurekin eta besteekin bizitzeko** zinema

# Recuerdos desde Fukushima




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05

www.baketik.org

## Baketik-en bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak… Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

# Recuerdos desde Fukushima

## Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Grübe aus Fukushima.

URTEA: 2016.

IRAUPENA: 104 min.

HERRIALDEA: Alemania.

ZUZENDARIA: Doris Dörrie.

AKTORE-ZERRENDA: Rosalia Thomas, Kaori Momoi, Moshe Cohen, Nami Kamata, Aya Irizuki, Thomas Lettow.

EKOIZPENA: Olga Film GmbH.

## Sinopsia

Maria, gazte aleman bat, Satomi izeneko andre japoniar nagusi baten adiskide bihurtzen da Fukushima eskualdean zehar egindako tour batean, 2011n Japonen gertatutako lurrikarak kaltetutako lurraldean. Mariak Alemaniatik Fukushimara bidaiatzea erabaki du bere bizitza aldatzeko. Clows4Help erakundean lan eginez, sarraski nuklearretik bizirik atera zirenei itxaropen apur bat eramatea da bere nahia. Laster konturatuko da ez dela gai kaltetuen mina arintzeko. Ordea, ihes egin beharrean, Satomi andre adindu zakarrarekin geratzea erabakitzen du, txikitutako bere etxera itzultzea erabaki zuen Fukushimako azken geisha. Bi emakumeak guztiz ezberdinak dira, eta hala ere, biak daude nolabait iraganean kateatuta. Errua eta oroitzapenen zama askatzen ikasi beharko dute.

## Gaiak

### Natura eta ekologia, adiskidetasuna, sufrimendua

**Natura eta ekologia.** Fukushimako sarraski erradioaktiboak 110.000 desplazatu baino gehiago sortu zituen. Ingurumenean eta pertsonengan eragindako kalteak oraindik orain kuantifikatu gabe daude. Zentral nuklearrak ez zuen euste-hormarik katastrofe honen eragilea izan zen tsunamia ekiditeko.

**Adiskidetasuna**. Pelikulak mundu eta kultura guztiz ezberdinetatik datozen bi pertsonen arteko adiskidetasuna deskribatzen du: Mary alemana da, Satomi japoniarra.

**Sufrimendua**. Bi protagonistek galera eta errua sufritzen dituzte. Iragana eta oroitzapenak une oro agertzen dira, eta nolabait, oraineko bizitzaren zentzua ez dute topatzen.

## Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

**…barrura begira.** Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.
**…kanpora begira.** Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.
**…ez bakarrik arrazoiarekin**, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.
**…eta denbora baten buruan**, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

## Hainbat galdera…

**…pelikula ikusi aurretik**
·Natura eta ekologiari buruz. Gizarteak bere eskuetan dagoen guztia egiten du naturaren armonia mantentzeko? Noren ardura da ingurumena ez kutsatzea?
·Adiskidetasunari buruz. Mina konpartitzeak adiskidetasuna laguntzen du? Zerk eragiten du adin, erlijio, arraza edo kultura ezberdinetako pertsonak lagun bihurtzea?
·Sufrimenduari buruz. Zer da errua sentitzea? Galera eta gabeziek ze gogo-aldarte eragiten dute? Zergatik pertsona batzuek hobeto egiten diete aurre akats eta porrotei?

**…pelikula ikusi ondoren**
·Mary Fukushimara iristen denean ostatu hartutako pertsonengana, zer sentitzen du? Zergatik egiten du ihes Satomi-k bere lehengo etxera, eta zergatik jarraitzen dio Mary-k? Zer daukate komunean biek? Mary-k bere herrialdetik ihes egin du lan altruista bat egitera. Hori al da arrazoia?
·Gauero agertzen diren mamuek zer bilatzen dute? Gertatutakoa onartzeak aukera berriei bidea irekitzen die? Oroitzapen mingarriek zergatik galarazten diete oraina bizitzea?
·Erru-sentimenduak bere buruaz beste egiten saiatzera darama Satomi. Zergatik? Geishek ze lan egiten dute? Satomiren harremana bere alabarekin, zer iruditzen zaizu? Satomik barkatua izan dela sentitzen du. Zergatik?

Cine para **vivir y convivir**

# Recuerdos desde Fukushima




baketik

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

943-25 10 05 www.baketik.org